

ganbaratik

◆ Koldo Alduntzin

## «Ohituta nago»

◆ «Ez da zilegi, baina ohituta nago. Gu mutilak adina entrenatzen gara, eta gure lorpenak ez dira haienak baino gutxiago». Adierazpen hori egin zidan Izaskun Bengoak, igande arratsaldean Tolosan Euskal Herriko txapelketa irabazi zuenak. Igandekoarekin, hirugarren txapela bereganatu zuen, eta, Joane Somarriba kenduta, Euskal Herriko txirritularirik onenak bildu ziren Tolosan. Horrekin esan nahi dut, ez zela proba kaskar bat.

Horrek, ordea, badirudi ez dela inolako garrantzirik komunikabideentzat. Astelehenean egunkariak zabaldu nituen, eta Eginek soilik ireki zuen txirritularitzari dagokion orrialdea albiste horrekin, Izaskunen argazki eta guzti. Beste batzuek, berriz, asko jota dozena bat lerro idatzi zuten. Izaskun Amurriokoa da, eta berak esan zidanez, Arabakoek ere ez zuten aipamen handirik egin; eta nafarrek zeresanik ez. Denok ordaintzen dugun irratia, sailkapena soilik, eta denok ordaintzen dugun telebista, gogoratu ere ez.

Gure honek espero nuen asteartean zertxobait agertzea, baina kale. Antza denez, gehienentzat erakarriagoa izan da Schumacher-ek zer egin zuen Montecarloko kotxe karreran edo Mantillak eta Conchita Martinezek galdu egin zutela Hamburgoko tenis txapelketan jakinaraztea, edo Kasparov-ek edo Bartzelonak saskibaloian, edo oraindik oke-rrago, Smetaninek eta Tokov-ek irabazi zutela Alcobendas eta Romandiako txirritulari probetan.

Bistan da kirolean ere jarraitzen dugula emakumezkoari muzin edo mespretxua egiten eta adibide bat besterik ez da gaurkoa. Bestalde, askori dario tokiz kanpoko uneetan Euskal Selektzioa behar dugula eta euskal kirola bultzatu behar dela eta abar. Euskal Herriko txapelketei ez badiegu kasu gehiago egiten... ◆

ARRAZOI PERTSONALEK eraman zuten iragan urtarrilean Eduardo Troncoso Buenos Airesera, amaren etxera, eta ustekabe atsegina aurkitu zuen muturren aurrean: trukearen esperientzia. «Nire amaren destista etxe bat erakitzen ari zen. Teilatua egiteko dirua agortu zitzaion eta sei hilabetez geldirik eduki zuen. Trukean izena eman zuen, elkartekide egin zen, eta igeltsero batekin jarri zen harremanetan; hark bi seme zituen eta ortodontzia tratamendua behar zuten. Zerbitzuak elkartrukatu zituzten, eta kitto».

Amaren lorategiko pikondo-ko fruituak erortzeaz zeudenez —han uda zen—, bi zorro pikuz bete, trukera joan eta semearentzako opariak erosi zituen: ipuin liburu batzuk. «Diru hori aurreztu egin nuen». Eta neurri handiko sistema ekonomiko bat deskubritu zuen. Argitaletxeak ezezik, truke sistemaren barruan sartuta baitaude Argentinan, besteak beste garraio konpainiak, kolegio pribatuak, nekazariak, emakume elkarteak... guztira 100.000 bat lagun. «Gutxiak, gazteak, ama ezkongabeak... egoera ekonomiko negargarrian bizi ziren, eta jakina da ekonomikoki gaizki bazaudela animikoki ere gaizki zaudela. Zulo beltzetik irten ziren trukeari esker». Bi urte eta erdian, 1993an aurre-esperientziak egin eta 1995ean azaldu zen trukea Argentinan.

«Imajinatu zenbat lagun, zenbat produktu eta zerbitzu!». Eskua poltsikoan ezertarako sartu behar izan gabe, diruaren ordez kredito izeneko unitate kontableak erabiltzen dituztelako. «Trukeak ez du aberas-

«Imajinatu: 100.000 pezetako sarrera baduzu eta dentista, janariak eta jantziak trukez eskura baditzaitez, aurreztu egingo duzu»

## Aurrezteko bidea

■ Truke taldea eratu dute Zarautzen 20 lagunek, gehiago batuko zaizkielakoan



teko helbururik, baina duen berehalako ondorioa aurrezte da. Imajinatu: 100.000 pezetako sarrerak badituzu, eta destista, janariak eta jantziak trukez eskura baditzaitez, diru hori aurreztu egiten duzu». Dirua ondasun geroz eta eskasagoa eta garestiagoa den garaiotan, diru faltak eragindako ezintasunetik eta menpekotasunetik askatzen ditu trukeak ekoizle txiki eta ertainak, hura-zu-ni, eta ez da harriztekoa jendea erabat interesatuta eta adidi egotea.

### Abantaila bat, bi, hiru...

Troncosok trukearen berri Zarautzen ezagunen eta adiskideen artean zabaldu zuen eta 20 bat laguneko taldea eratu dute. Dagoeneko eskutik eskura dabilta merkantziak, batek egindako tartak, besteak landutako ortuko produktu ekologikoa eta *nodine* izeneko bonoak. «Datorren larunbatean bilduko gara berriro eta jendea gerturatzea nahi dugu, bakoitza bere produktuekin, zer daukan edo egiten zer dakien jakinda, elkartrukatzen hasteko».

Trococok berak, esaterako, akupuntura saioak edo jarrera eraldatzeko ikastaroak eskainiko ditu; Libe Illaramendi haren emazteak, akupuntura, tartak eta lanparak,

Trukearen berri Zarautzen ekarri duen Eduardo Troncoso argentinarrak akupuntura saioak eskainiko dizkie taldekoei. Libe Illaramendi emazteak akupuntura eta lanparak, eta Marian Izpizua, berriz, tarta integralak.

EDURNE KOCH

eta Marian Izpizua tarta integralak. Maitrik sukaldaritza makrobiotikoa, Hectorrek ortuko produktu biologikoak, Pilarrek jostun lanak, Elenak pintatutako erropa; Jose Luisek eta Elenak gaixoak zainduko dituzte, Bernardek euskara eskolak emango ditu, solfoa Juliak...

Larunbateko hitzordura joan ezin duenak badu nora jo trukearen oinarriak ezagutu nahi baditu: 83 22 23 telefono zenbakira. «Zein abantaila dakartzan?» Bat oso garrantzitsua, Troncosoren aburuz: «Ekoizleak eta kontsumitzaileak elkarlotzea eta euren harremana aberastea». Baita bigarren bat ere, ez garrantzi gutxiagokoa: «Norberaren autoestima eta sorkuntza gaitasuna handitzen ditu, guntzatsen duguna baino gehiago dauka-gulako eskaintzeko». Etikoki ideia polita da. Zer behar dugun, benetako gure beharrak zein diren ulertzeko balioko omen digu, gauzak preziorik gabe baloratzen ikasiko omen dugu, Antonio Machadok esango zukeen moduan, balioa eta prezioa nahasten dituzten nezio bilakatu baikara, monetarismoaren eraginez edo.

Alazne Iturriotz

ZARAUTZ

# MUNDUKO ATLASA

MUNDUA • KONTINENTEAK • ESTATUAK • ESTATURIK GABEKO HERRIAK

EUSKAL HERRIA

12 faszikulutan

Egunkaria rekin, asteazkenero eta larunbatero

390 pta  
16 libera

